

## Joseba Jaka

*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-04-21: 3.

Badakit zutabetxo hau laburra dela, ez duela askotan nik nahi adina eduki eroaten. Halere, ez da hemen, Joseba Jaka hartzerakoan, lekune eskasia hau oztopo... Zu zeu ere ez zara gorpuzkeraz handi, ezta izatez bonbazia handikoa ere, alderantziz, diskretu, moldaeraza. Efikaza, esango nuke erdal kutsua duen hitz ezagun eta egoki batekin. Etxean eta eroso sentitzen zaitudan honetan aitortuko dizut lehen aldiz zein gustura sentitu izan naizen kargak zamatzeko lanetan zure konpainian. Ez bakarrik iparralderako gainezkadura hartan (1973) ezagutu zintudanean, zu euskal liburuak garraiatzen, zabaltzen, zure politika hauxe baitzen, neurea gure herriko bi mutur lotzen ahalegintzen. Gero, lan berdinetan ari ginela aurkitzen gara Joxemi Zumalaberen aurpegi aingerukiarekin, EGUNKARIAren ametsetan. Abian ikusi nuen zu zinela, hitz gutxi, behako apal, gutatik oinak lurrean zituena. Bazen Torreal dai eta gertuko beste lagunik ere, asko eta onak; hemen legoke gustora Lizardi 1929an egunkarigintzarako eskatzen zuenean: "ontan, nik uste, gauzak guztien gaintik alkar lagundu-beharra jarri behar degu. Iritzitxoen gaintik *iritzia*, euskeraren ona. Euskeraren ona ezpaiditeke euskotasun osozalearen kaltegarri".